

IKASKIDE TALDEAK

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN DISEINUA

Oinarrizko printzipioak eta tresnak

2011ko formazioa

SEKUENTZIA (proiektua) DISEINATZEKO IKUSPEGI OROKORRA

- 1) Sekuentzia didaktiko baten lehen harria jartzen da, geure irudiko, egile batek (edo talde batek) ikuspen orokor bat mamitzen duenean: “Kontxo! Ikusten dut zer egin eta nola egin.” Hau da, konparazio batera, sortzaile baten jatorrizko ideia, nolabaiteko zirriborro orokorra, edo abiaburuko intuizioa. Ondoren, jakina, urratsak eta urratsak egin beharko dira hori guztia ahalik eta gehien zehaztu arte, baina honez gero enborra egina dago. Beraz, badao hasieran ernamuina sortzeko une bat, eta ondoren huraxe garatzeko eta zehazteko beste mugimendu bat.
- 2) Une sortzailearen helburua ikuspen orokor bat mamitzea da. Eta ezaugarria du osagai gutxirekin osatzen duela ikuspen hori. Osagai gutxi, baina oso garrantzitsuak: funtsezkoak. Etxe bat eraikitzerakoan gutxi dira zutabeak, baina etxe osoari (gerora etorriko diren xehetasun guztiei) eusten diote. Fase honetan, funtsezko zutabeak identifikatzea eta haien arteko koherentzia jostea dugu eginkizun nagusia. Fase honetan funtsezkoa ez den informazioa, ikuspen orokorraren mamitzea lausotzen duen “zaratatza” hartu beharko genuke.
- 3) Osagai gutxi baina funtsezko horiek hiru alorretan banatzen dira (konpetentzia espezifikoei lotutakoak, zeharkako konpetentziari lotutakoak, eta ebaluazioari lotutakoak) eta haietako bakoitza bi mailatan kontsideraturik (helburua eta bidea). Alorrek eta mailak nahasturik sei kategoria sortzen zaizkigu. Sei kategoria horiek eraikitzen dute sekuentzia didaktikoaren muina edo oinarritzko eraikuntza.
- 4) Kategoria bakoitzak eskatzen duen ideia nagusia sortzeko luze eta zabal egin dezakegu azterketa prozesua, nahi izatera. Lan horretan oso interesgarriak dira De Bonoren txapelen teknika, edo Tapiaren urraspide eta iradokizunak, besteak beste. Hala ere, ideiak harrotu ondoren bukaeran beti zerbait hautatu beharko da, gauza bat edo bi eta ez besterik. Aukeratutako hori izango baita, finean, zutabe nagusia kategoria horri dagokionez.
- 5) Behin sei kategoriak osatuta, osotasuna eraiki beharko luketen sei osagai funtsezkoak hortxe izango genituzke ongi zehazturik. Baina ezin fase hau bukatutzat eman oinarritzko sei osagaien arteko koherentzia goitik eta behetik berretsi arte. Koherentziak zerbait falta duela nabaritzen gero, hura eskuratzeko eragin beharreko aldaketak eragin beharko lirateke une honetan. Prozesua ongi burutu dugulako zantzua izango litzateke, orduan, egileak barru-barrutik zera esaten duenean: “Orain bai, egin beharrekoa ikusi egiten dut!! Eta gainera hori egiteko gauza sentitzen naiz”. Honelako ikuspena eta sentsazioa izateko, ez da beharrezkoa kontu guztiak xehe-xehe eginda edukitzea.
- 6) Ikuspen oso horretatik aurrera abiatzen da bigarren mugimendua, zeinak astiro-astiro baikaramatza oinarritzko egitura (muina) egutegian zehar zabaltzera eta urrats txikiak zehaztera.




SEKUENTZIA (proiektua) DISEINATZEKO IKUSPEGI OROKORRA - ESKEMA

Hiru osagai eta hiru zehaztapen-maila


Osagaiak:

1. Landuko den materiaren **helburu (konpetentzia) espezifikoak** eta proiektua aurrera eramango duen jarduera nagusia (azken xedea).
2. Landuko ditugun **zeharkako konpetentziak** eta horiek lantzeko erabiliko ditugun metodologiak.
3. Aurrera eramango dugun **ebaluazio** mota eta ebaluatzeko metodologia.

Zehaztapen mailak:


-  Lehenengo zehaztapen maila: **proiektuaren muina.**
-  Bigarren zehaztapen maila: **proiektuaren faseak**
-  Hirugarren zehaztapen maila: **egunez eguneko programazioa**

Osotasunaren printzipioa: Hiru osagaiak batera joan behar dute proiektuari osotasuna emateko. Hirurak batera agertzen dira orduan, maila bakoitzean gero eta zehatzago agertu ere. Hona hemen irudi batera ekarrita:



IKASKETA PROZESUA GELAN MODU KOOPERATIBOAN EGITURATZEKO ESKU-HARTZE EREMUAK

(Pujolàs P. "9 Ideas Clave para el Aprendizaje Cooperativo". Graó, 2008)



SEKUENTZIA (PROIEKTUA) ZEHAZTEN – 1. URRATSA / LEHENENGO ZEHAZTAPEN MAILA – PROIEKTUAREN (SEKUENTZIAREN) MUINA

LEHENENGO ZEHAZTAPEN MAILA - Proiektuaren muina – Hartu beharreko erabaki potoloenak	
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer lortu nahi dugu? 	<ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako Konpetentziak • Konpetentzia Espezifikoak <ul style="list-style-type: none"> ○ Landuko dugun materiari/materiei zuzenean lotutakoak • Ebaluaziorako Konpetentziak
<p>METODOLOGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nola egingo dugu lan helburuak lortzeko? 	<ul style="list-style-type: none"> • Azken xedea: taldeka proiektu bat gauzatzea, zeharkako konpetentziak + konpetentzia espezifikoak + ebaluaziorako konpetentziak lantzea ahalbidetuko diguna. Horretarako, erabiliko ditugu • Metodologia aktiboak <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Ikaskide taldeak</u> – taldekatze motak ▪ <u>Lan autonomoa</u> - oso gidatua ---- oso gutxi gidatua (irakasleak eskainiko duen laguntza maila) ▪ <u>Bakarkako lana + talde lana uztartu</u> ▪ <u>Jarduera motak</u> – helburuak lortzera bideratutakoak : talde kohesiora bideratuak, talde lana ikasteko baliabide gisa erabiltzeko eta talde lana irakatsi behar den baliabide gisa ulertzeko. <ul style="list-style-type: none"> • <u>Teknika kooperatiboak</u> – jardueren izaerari erantzungo diotenak • Ebaluazioaren gaineko ikuspegia: zer eta nola
<p>EBALUAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zertarako ebaluatu? • Zer ebaluatu? • Nork eta noiz ebaluatuko du zer? • Nola ebaluatuko da? 	<ul style="list-style-type: none"> • Zertarako ebaluatu <ul style="list-style-type: none"> ○ Ebaluazioaren gaineko ikuspegia ○ Ebaluatzeko irizpideak • Zer ebaluatu <ul style="list-style-type: none"> ○ Finkatutako helburuen lorpen maila (zeharkako konp. + konpetentzia espez. + edukiak...) ○ Prozesu osoa / azken emaitza ... ○ Metodologia (lan kooperatiboa...) • Nork eta noiz ebaluatu <ul style="list-style-type: none"> ○ Irakasleak / ikasleek / taldeak (zer- nork- noiz: prozesuaren hasieran / prozesuan / bukaeran...) ○ Autoebaluazioa / koebaluazioa / heteroebaluazioa (zer- nork- noiz: prozesuaren hasieran / prozesuan / bukaeran...) • Nola ebaluatu <ul style="list-style-type: none"> ○ Ebaluatuko den atal bakoitzari emango zaion balioa (%koak) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zehaztutako helburu-multzo bakoitzari emango zaion balioa <ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako kompetenziei: %X/konpetentzia espezifikoak: %Y / ebaluaziorako konpetentziak %Z ▪ Irakasleak egingo duen ebaluazioak azken kalifikazioan izango duen pisua (%tan) + ikasleek egingo duten ebaluazioak izango duen pisua (%tan)

DISEINU EREDU ERREAL BAT

Materia: Nutrizioa; ikasmaila: 3 DBH. proiektuaren iraupena: 13.30 ordu; saio kopurua: 9 saio

LEHENENGO ZEHAZTAPEN MAILA - Proiektuaren muina

<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer lortu nahi dugu proiektu honen bidez? 	<ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako Konpetentziak Talde lanean ari direla, eskura duten informazioaren eta egin beharrekoaren artean lotura pertsonalizatuak eta taldekideekin konpartituak egin. • Konpetentzia Espezifikoak Lau aparatuei buruz (digestiboa, hestetakoa, zirkulatorioa eta iraitzekoa) duten ezagutza aplikatu dieta espezifikoak egiteko) • Ebaluaziorako Konpetentziak Informazioaren trataera eta aurkezpena Taldearen funtzionamenduz hausnartzea
<p>METODOLOGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nola egingo dugu lan helburuak lortzeko? 	<ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako konpetentziak Hiru urratsetako protokoloa aplikatu sistematikoki: 1) zer nahi dugun (gure beharra ongi zehaztea), 2) zeunden testuan (edo bestelako informazio iturrian) ideia nagusia (ongi ulertzea informazioa), eta 3) egin beharrekoarentzat informazioa erabilgarria ote den baloratzea Informazioa konpartitzeko, “ laburtu-baieztatu” prozedura • Konpetentzia espezifikoak Hainbat behar espezifikoetarako dieta egokiak prestatzea taldeka puzzle teknika aplikatuz • Ebaluaziorako konpetentziak Talde aurkezpenak lanari buruz eta banakako frogatxo bat edukiei buruz. Irakaslearen behaketak hiru urratsetako protokoloari buruz eta “ laburtu-baieztatu” prozedurari buruz Prozesuaz gogoeta egin “ semaforoaren” teknikak baliatuz
<p>EBALUAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zertarako ebaluatuko dugu? • Zer ebaluatuko dugu? • Nork eta noiz ebaluatuko du zer? • Nola ebaluatuko da? 	<ul style="list-style-type: none"> • Zertarako ebaluatu <ul style="list-style-type: none"> ○ Ebaluazioaren gaineko ikuspegia • Zer ebaluatu <ul style="list-style-type: none"> ○ Finkatutako helburuen lorpen maila: • Nork eta Noiz ebaluatu Zer <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikasleek: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde lanaren gorabeherak, azken xedearren egoera...nola gabiltza, nola hobetu – etengabeko hausnarketa ▪ Nork bere lana (erabakitako helburuetan) – <u>autoebaluazioa</u>. ▪ Bakoitzak bere taldekideen lana (erabakitako helburuetan) - <u>ko-ebaluazioa</u>. Prozesuan zehar bi momentu zehaztu dira horretarako ▪ Ikaskide talde bakoitzak beste talde baten azken emaitza - aurkezpena (erabakitako helburuetan) – <u>hetero-ebaluazioa</u>: prozesuaren bukaeran

- Irakasleak:
 - Ikasle bakoitzaren lana (zehaztutako helburu guztietan) - prozesu osoan zehar
 - Ikaskide taldeen lana (zehaztutako helburu guztietan) – prozesu osoan zehar
 - Azken emaitza - aurkezpena (zehaztutako helburu guztietan)– prozesuaren bukaeran

- **Nola ebaluatu**

- Ebaluaziorako tresna nagusia:
Talde aurkezpenak
Irakaslearen behaketak
Prozesuaz gogoeta egin.

Ebaluatuko den atal bakoitzari emango zaion balioa:

- Irakasleak egindako ebaluazioak azken kalifikazioaren %70aren balioa izango du; ikasleek egindakoak %30arena.
- Helburu multzo bakoitzari emango zaion balioa:
 - Zeharkako kompetentziei - %20
 - Konpetentzia espezifikoei - % 70 (horien barruan, Konp. Esp. garatzeko erabiliko diren edukien lanketak azken kalifikazioaren %20aren balioa izango du eta azken aurkezpenak, %50arena).
 - Ebaluaziorako kompetentziei: %10

SEKUENTZIA (PROIEKTUA) ZEHAZTEN – 2. URRATSA
BIGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – PROIEKTUAREN (SEKUENTZIAREN) FASEAK :
3 FASE: 1) hurbilpena, 2) garapena/sakontzea, 3) aplikazioa/bukaera

BIGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – HURBILPEN FASEA				
ZER (helburuak)	NOLA (jarduerak)	ZER ERABILIZ (baliabideak)	PRODUKTUA	EBALUAZIOA
Zeharkako Konpetentziak: <ul style="list-style-type: none"> • ... • ... 				
Konpetentzia Espezifikoak <ul style="list-style-type: none"> • ... • ... • ... 				
Ebaluaziorako Konpetentzia <ul style="list-style-type: none"> • ... • ... 				

BIGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – GARAPEN/SAKONTZE FASEA				
ZER (helburuak)	NOLA (jarduerak)	ZER ERABILIZ (baliabideak)	PRODUKTUA	EBALUAZIOA
Zeharkako Konpetentziak: <ul style="list-style-type: none"> • ... • ... 				
Konpetentzia Espezifikoak <ul style="list-style-type: none"> • ... • ... • ... 				
Ebaluaziorako Konpetentzia <ul style="list-style-type: none"> • ... • ... 				

BIGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – APLIKAZIO/BUKAERA FASEA

ZER (helburuak)	NOLA (jarduerak)	ZER ERABILIZ (baliabideak)	PRODUKTUA/EKOIZPENA	EBALUAZIOA
Zeharkako Konpetentziak: <ul style="list-style-type: none">• ...• ...				
Konpetentzia Espezifikoak <ul style="list-style-type: none">• ...• ...• ...				
Ebaluaziorako Konpetentzia <ul style="list-style-type: none">• ...• ...				

SEKUENTZIA (PROIEKTUA) ZEHAZTEN – 3. URRATSA
HIRUGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – EGUNEZ EGUNEKO (SAIOZ SAIOKO) PROGRAMAZIOA

HIRUGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – HURBILPEN FASEA					
NOIZ (saioak)	ZER (helburuak)	NOLA (jarduerak)	ZER ERABILIZ (baliabideak)	PRODUKTUA	EBALUAZIOA
1. saioa (behar beste saio)	Zeharkako Konpetentziak: • ... • ...				
	Konpetentzia Espezifikoak • ... • ... • ...				
	Ebaluaziorako Konpetentzia • ... • ...				

HIRUGARREN ZEHAZTAPEN MAILA – GARAPEN/SAKONTZE FASEA					
NOIZ (saioak)	ZER (helburuak)	NOLA (jarduerak)	ZER ERABILIZ (baliabideak)	PRODUKTUA	EBALUAZIOA
“x”. saioa (behin hurbilpen fasea bukatuta, behar beste saio)	Zeharkako Konpetentziak: • ... • ...				
	Konpetentzia Espezifikoak • ... • ... • ...				
	Ebaluaziorako Konpetentzia • ... • ...				